

1. Zer dira irakurleak?
2. Zertaz mintzo da idazlea?
3. Zer xede hartu du?

AGUR IRAKURLEAK *

II

Udako itzulia eginik, huna hemen berriz, zien artean solaskari eskualduna, luzesko urrundua egon ondoan. Sailari lotzeko xedean yina edo ethorria niz, bakharrrik dakitan mintzairan, Baxenabartarrean, irakurleen barkamenduaikin.

Bi ilhabete eta goxoki iraganak gure sortherri maitian ez dira nolanaahi ahaztekoak, ene herritarreri hain atxikia izanikan, eta eskualdunagoak erro azkarrak bihotzian ditienarentzat.

Bake eder hartan, miresgarrizko leku eta aurkintza heien artean, mendiz goiti eta behiti, oihan eta phentze kuritzen. Noranahi gure begiek behakoa finkatzen ditoken alferditarat, nun nahi, bazter guzietan kausitzen ginuen edertasun xoragarria. Begien loria, bihotzaren bozkarioa, arimaren xaramela!!

Hego aldeko herrialdetan idorteak eta bero izigarriek bazterrak agortu² eta kixkaldu omen zituen udaminean. Luzaiden, haatik, phentziak doi-doi horitu ziren, bainan ez

guziak gero; iguzkiak egun guzia yotzen zituztenetan bakarrik. Bertzeak, udaberrian bezalatsu, pherde bizi-biziak zauden. Ikhustekoak ziren Aitzurreko errekaoko pentziak!

Eta ze erran hango ureta? Marimatteneko bordako ithurriño hartakoak, ahoan kasik ezin atxikia bere hotztasunaz, bazien errekesta, bero sapha haundietan! Itzal goxo hartan, haritzen pian biltzen ginen alfer egarrituak.

Hitz dautziet, irakurleak, ase hün bat egin dutala gure hitzkuntza maitetik; bethi solasian, bethi kalakan, eta noizian-behin hitz zahar bat ikhasten, damurik ahazia, haren ordez hitz arrotza ibiltzen dutelakotz.

Gauzarik harrigarriena da ikhustea nola igandetan gaingetako bazterretxe urrunduenetarik yausten diren goizmezaren entzutera gizon eta emazte xaharrak, adin haundiakoak, zombait lauetan hogoi urtheakoak eta gehiago. Eta gero, etxeratekoan, patar lotsagarriari goiti, hats gaitzian, izerdituak, gaixuak. Balio du zerbait heien mezak!

Ez bazituztet enheatzen, eta nagitasunak ez banu berezten, noiztenka agertuko dira ene lerroak, norbaitek egin beharko baitu lantto hori, zeren eta ohartzten niz aspaldidanik arrunt ixilik daudela eskual idazle guziak, ezpainak yosirik.

* (La Voz de Navarra, 1933/10/10)

y = j Ex. yina = jina

yotzen = jotzen (edo) jortzen

ze = zer

bazien = bazuen etc.

barkamenduaikin = barkamenduairekin.

III ADITZ IKASKUNTZA.

- | | |
|--------------------|-------------|
| 31. Dakitan | 32. Diteken |
| 33. Diria | 34. Ginen. |
| 35. Hitz dautziet. | |

31. JAKIN. Indic. Présent. Imparfait

Nik dakit = je le sais	nakien = je le savais
Hik dakik = tu le sais	hakien
Zuk dakizu = vs le savez (s)	zinakien
Harek daki = il le sait	zakien
Guk dakigu {	ginakien
Zuek dakizue { (t)	zinakiten
Heiek dakite etc	zakiten etc

32. IZAN. Potentiel Présent.

Ni izan naiteke = je peux être
Hi izan haiteke = tu peux être
Zu izan zaitezke = vs pouvez être (s)
Hura izan daiteke = il peut être = diteke
Gu izan gaitezke = no pouvons être
Zuek izan zaitezkete = vous pouvez être (p)
Heek izan daitezke = ils peuvent être

33. IZAN. Indic. Prés. Imparfait

Ni naiz = je suis	minzen = j'étais
Hi naiz = tu es	hinzen = tu étais
Zu zare (zira) = vs êtes	zinen = vs étiez
Hura da = il est	zen = il était
Gu gare (gira) = {	ginen = no étions
Zuek zaitze = {	zinizten
Heek dire = etc	ziren etc